


[Ikusi bideo](#)                [Ver video](#)


MENDI
ASTEA



# XVI. BEASAINGO MENDI FESTIBALA

"Beasaingo Mendi Astea" mendia maite dutenentzat hitzordu gogokenetakoa da. Edizio hau berrikuntza askorekin dator. Batetik, izen aldaketa:***"Beasaingo Mendi Festibala"***.

Bestetik, datak aldatu ditugu. Aurten, "Beasaingo Mendi Festibala" ***urriaren 17, 18, 19, 24 eta 25ean*** izango da. Ikusentzunezko guztiak ***Usurbe Antzokian izango dira 19:30ean.*** Antolatzaileak ***Arrastaka Mendi Taldea eta Aizkorri Mendizale Elkartea*** dira, ***Beasaingo Udalaren*** babesarekin.

Bost ikusentzunezkok osatuko dute "Beasaingo Mendi Festibalaren" ***hamaseigarren edizioa***, mendizaletasunaren inguruko bizipenak ezagutu, elkarbanatu eta partekatzeko topagune ezin hobea.

Aurreko edizioetan bezalaxe, aurten ere, mendizaletasunaren eta abenturaren munduan ezagunak diren gonbidatuak izango ditugu gure artean eta mendian izandako bizipenak kontatuko dizkigute aurrez aurre.

Aurtengo gonbidatuak honako hauek dira: ***Maialen Rojo, Koldo Zubimendi, Fernando Garrido eta borobiltzeko, Joseba Iztueta, Arrastaka Mendi Taldeaz eta Aizkorri Mendizale Elkarteaz gain.***

# XVI. BEASAINGO MENDI FESTIBALA

La “Beasaingo Mendi Astea” es una de las citas más esperada para los amantes de la montaña. Esta edición viene cargada de novedades. Por un lado el cambio de nombre que pasa a denominarse: ***“Beasaingo Mendi Festibala”.***

Por otro lado destacaremos el cambio en las fechas. Este año celebraremos la “Beasaingo Mendi Festibala” ***los días 17, 18, 19, 24 y 25 de Octubre***. Todas las proyecciones se celebrarán ***en Usurbe Antzokia a las 19:30h***. Está organizada por ***Arrastaka Mendi Taldea y Aizkorri Mendizale Elkartea,*** con la colaboración del ***Ayuntamiento de Beasain.***

Cinco proyecciones darán forma a la ***decimosexta edición*** de la “Beasaingo Mendi Festibala”, el marco idóneo para conocer, intercambiar y compartir experiencias en torno al montañismo.

Como en ediciones anteriores este año contaremos con la presencia de caras conocidas en el mundo de la montaña y la aventura que nos relatarán en primera persona sus experiencias vividas en la montaña.

Este año contaremos con la participación de: ***Maialen Rojo, Koldo Zubimendi, Fernando Garrido y como colofón Joseba Iztueta. Además de Arrastaka Mendi Taldea y Aizkorri Mendizale Elkartea***



# “BIDEAK IREKIZ”

## “Abriendo caminos”

**MAIALEN ROJO**

Urriak 17, Asteartea.

Usurbe Antzokian. 19:30ean

Zikloa asteartean, ***urriaren 17an,*** hasiko da ***“Bideak irekiz”*** ikusentzunezkoarekin, ***Maialen Rojoren*** eskutik.

Maialen Rojo gasteiztarra aurkeztea, egungo FEDME-ko (Mendi eta Eskaladako Federazio Espainiarra) goi mendiko talde femeninoko partaiden de alpinista gazteaz hitz egitea da. 2021eko “Xabier Ormazabal” bekaren irabazlea ere bada, Alpeetan bide bate irekitzeko proiektuagatik.

“ Bideak irekiz: FEDMEko Goi Mendiko Talde Femeninoak 2022ko azaroan Jordaniara eta Saudi Arabiara egindako espedizioaren ikusentzunezkoa da. Espedizio honen helburua eta kirol emaitza, hondarrezko horma handietan autobabeseko 12 eskalada-bide berri irekitzea izan zen.

Proiektu honek emakumeak mendiko kiroletan duen, kasu honetan eskaladan eta goi mendian bereziki, eginkizuna eta ikusgarritasuna azaleratzen ditu.”

---

*El ciclo echará a andar el martes, **día 17 de octubre,** con la proyección **“Abriendo caminos”** de la mano de **Maialen Rojo.***

*Presentar a la gasteiztarra Maialen Rojo es hablar de una joven alpinista perteneciente al actual equipo femenino de alpinismo de la FEDME (Federación Española de Deportes de Montaña y Escalada). Ganadora en el 2021 del premio de la beca “Xabier Ormazabal” por su proyecto de abrir una nueva vía en los Alpes.*

*“ Abriendo caminos: es el resultado audiovisual de la expedición a Jordania y Arabia Saudí del Equipo Femenino de Alpinismo de la FEDME durante noviembre de 2022 y cuyo objetivo y resultado deportivo fue la apertura de 12 nuevas vías de escalada de autoprotección en la grandes paredes de arenisca.*

*Este proyecto destaca el papel y visualización de la mujer en los deportes de montaña, y concretamente en este caso, en la escalada y el alpinismo.”*



# KHARUT II:
## Lehenbiziko igoera baten istorioa

**KOLDO ZUBIMENDI**

Urriak 18, Asteazkena.

Usurbe Antzokian. 19:30ean

*Urriaren 18ko  ikusentzunezkoan Erandioko Koldo Zubimendi izango dugu gure artean "Kharut II Lehenbiziko igoera baten istorioa" lanarekin.*

*Koldo Zubimendik Kharut II mendira lehen igoera egin du, K2 (8.611 m) ezagunaren alboan dagoen 6.800 m-ko mendiara hain zuzen. Zubimendik Vicente Barcenarekin partekatu zuen espedizioa, baina honek gailurrerako saiakerarekin ezin jarraitu eta igoera bertan behera utzi behar izan zuen. Koldok berak bakarrik egin zuen gailur honetara egindako lehen igoera. Aurtengo udan bertan, bi euskaldunak iritsi aurretik, Luke Smithwick estatubatuarra  ere saiatu zen, baina ez zuen igotzerik lortu.*

*"Jan Kielkowskiren liburuan zenbait mendiri begira, Kharutek hiru gailur dituela eta igota zegoen bakarra Iparraldeko Kharut zela ikusi nuen, beste biak igo gabe zeuden. Interneten informazio bila hasi nintzen eta aurkitzen nuen guztiak uste hori baieztatzen zuen, alegia, Kharut 1 eta 2 igo gabe zeudela. Espedizio japoniarrak, ingelesak eta estatubatuarraka bost saiakera inguru eginak ziren aurretik baina inork igo gabe zirauen artean", dio Koldok.*

*Vicentek eta biok izandako pozak, zailtasunak, barreak eta malkoak ikusiko dira. Ikusentzunezkoan oinarrizko kanpamendura egindako bidaia, glaziarreko borroka eta mendiko igoera azalduko ditugu.*

*Zorionez han gozatu genuen bakardadea sentitzeko aukera izan genuen".*

*En la proyección del día 18 contaremos con la presencia del Erandotiarra Koldo Zubimendi que nos presentará su trabajo "KHARUT II Historia de una primera ascensión".*

*Koldo Zubimendi ha realizado la primera ascensión de Kharut II, un pico de 6.800 m situado cerca del famoso K2 (8.611 m). Zubimendi compartió expedición con Vicente Barcena, quien tuvo que retirarse y no pudo seguir con el ataque a la cumbre. Koldo realizó en solitario la primera ascensión de este pico que había sido intentado este verano sin éxito por el estadounidense Luke Smithwick antes de la llegada de los dos alpinistas vascos.*

*"Mirando en el libro de Jan Kielkowski diferentes montañas vi que los Kharut son tres picos y que solo estaba ascendido el Karut Norte, no los otros dos. Entonces empecé a buscar información en internet y todo lo que encontré corroboraba que ni el Kharut 1 ni el 2 habían sido ascendidos. Había habido intentos anteriores de unas cinco expediciones de japonesas, inglesas y estadounidenses, pero permanecía virgen», explica Koldo.*

*Serán visibles las alegrías, dificultades, risas y lágrimas vividas por Vicente y por mí. En la película explicaremos el viaje hasta el campo base, la batalla con el glaciar y el ascenso a la montaña.*

*Afortunadamente tuvimos la oportunidad de sentir la soledad que disfrutamos*





## "EKINTZAZ BETETAKO URTE BAT"
"Un año de actividades en la montaña"

**ARRASTAKA MENDI TALDEA**
Urriak 19, Astearzkena.
Usurbe Antzokian. 19:30ean

Osteguna, hilak 19, Beasaingo bi mendi taldeena izango da. Aizkorri Mendizale Elkarteak zein Arrastaka Mendi Taldeak ikusentzunezko bana aurkeztuko du eta bi taldeek burututako ekintza ezberdinak ikusi ahal izango ditugu. p

Aizkorri Mendizale Elkartearen ikusentzunezkoaren izena "Jardueraz betetako urtea mendian". Aizkorri Mendizale Elkarteko kideek aurtengo urtean zehar burututako jardueren gainbegirada izango da.

Arrastaka Mendi Taldeak aurkeztuko duen ikusentzunezkoaren izena ere berdina da " Jardueraz betetako urtea mendian". Kasu honetan, Arrastaka Mendi Taldeko kideek egindako igoeren, ikastaroen, eskaladen eta zeharkaldien gainbegirada izango da.

---

El jueves, día 19, está reservado para los dos clubs de montaña de Beasain. Tanto Aizkorri Mendizale Elkartea como Arrastaka Mendi Taldea presentarán dos audiovisuales en los que podemos disfrutar de las diferentes actividades realizadas por sendos clubs.

En la proyección que presenta Aizkorri Mendizale Elkartea tiene como título "Un año de actividades en la montaña". Será un repaso por las diferentes actividades llevadas a cabo por los miembros de Aizkorri Mendizale Elkartea durante este año.

En la proyección que presenta Arrastaka Mendi Taldea tiene el mismo título "Un año de actividades en la montaña". Será un repaso por las diferentes ascensiones, cursillos, escaladas y travesías llevadas a cabo por los miembros de Arrastaka Mendi Taldea.

## "EKINTZAZ BETETAKO URTE BAT"
"Un año de actividades en la montaña"

**AIZKORRI MENDIZALE ELKARTEA**
Urriak 19, Astearzkena.
Usurbe Antzokian. 19:30ean





## "AIREA FALTA DEN LEKU HORRETAN"

"Allí donde falta el aire"

**FERNADO GARRIDO**

Urriak 24, Asteartea

Usurbe Antzokian. 19:30ean

***Urriaren 24an, asteartea,*** izen handiko ***Fernando Garrido*** mendigoizalea izango da gure artean eta aurkeztuko digun ikusentzunezkoa "Airea falta den leku horretan" da.

Egun Fernando Garridori buruz hitz egitea mendizaletasunaren historiari buruz hitzegitea da. 1988ko neguan Cho Oyu (8.201m) igo zuen berak bakarrik. Baldintza horietan zortzimilako bat igotzen zen lehen aldia izan zen munduan. 1985-86an 62 egunez Aconcaguako gailurrean egon zen, ia 7.000 metroko alturan. Honekin erresistentzia proba bat burutzeaz gain, alturan irautearen munduko errekorra hautsi zuen. Marka hau ez du inork gainditu oraindik. 3 aldiz izan da Everesten (8.848 m.): lehenbiziko aldian, espedizio handi batekin Ipar Horman (Hornbein Korridorea) bide partzialki berri bat irekiz 8.700 m-ko altuerara arte oxigenorik gabe. Hurrena neguan eta bakarrik saiatu zen eta azkenik, jada gidari lanetan ari zela, ohiko bide tibetarretik.

'Airea falta den leku horretan". Hau da Fernando Garrido mendizaleak munduko mendirik altuenetarako igoerei buruzko bere azken ikusentzunezkoari jarri dion izena.

Emanaldi honekin Fernandok, bizitza osoa dedikatu dion "airea falta den" mundu horretako bere sentipenak, bizipenak eta anekdotak kontatu nahi dizkigu. Hitzaldia, argazkiez eta musikaz, bideak azalduko dituzten efektu bereziez, egoeren mapez, testuz, eta abar lagundua izango da. Helburua bertaratutako ikusleei (ez dago gaian aditua izan beharrik) hotza, nekea, horren ertzekoak eta gogorrak diren 6.000, 7.000 eta 8.000 metroko gailur horietako momentu on eta txarrak sentiaraztea da, baina guztia "ezohiko" mendizale baten ikuspuntu nolabait "ezberdinetik.

En la proyección del ***martes 24 de octubre*** contaremos con la presencia del prestigioso alpinista ***Fernando Garrido*** que nos presentará su trabajo “Allí donde falta el aire”.

Hablar de Fernando Garrido a estas alturas es hablar de la historia de del alpinismo. En 1988 subió en invierno, en solitario al Cho Oyu (8.201m) realizando así la primera ascensión mundial a un ochomil en estas condiciones. En 1.985-86 permanece 62 días en la cumbre del Aconcagua, a casi 7.000 metros de altura, realizando una prueba de resistencia, y bate el récord mundial de permanencia en altura. Esta marca aún no ha sido superada. Ha estado 3 veces en el Everest (8.848 m.): la primera, con una gran expedición abriendo una ruta parcialmente nueva en la Pared Norte (Corredor Hornbeín) hasta los 8.700 m, sin oxígeno. Después lo intentó en invernal en solitario y la última vez, ya trabajando de guía, por la normal tibetana.

‘Allí donde falta el aire” Este es el título que el montañero Fernando Garrido ha puesto a su última conferencia- audiovisual sobre las ascensiones a las montañas más altas del mundo.

Con esta charla Fernando quiere transmitirnos sus sensaciones, experiencias, anécdotas de toda una vida dedicada a ese mundo “donde falta el aire”. La conferencia está apoyada visualmente por fotografías y música, con efectos especiales explicativos de las rutas, mapas de situación, texto, etc. La idea es hacer llegar al público asistente (no tiene por qué ser experto en el tema) el frio, el cansancio, los momentos buenos v malos de esos lugares tan extremos y duros de las cumbres de 6.000, 7.000 y 8.000 metros de altura, pero todo visto a través del prisma un tanto “diferente’ de este montañero “atípico”.





## “ZANSKARREKO ESKALADAK”

“Escaladas de Zanskarre”

**JOSEBA IZTUETA**

Urriak 25, Asteazkena

Usurbe Antzokian. 19:30ean

Hurrena, ***urriaren 25ean***, asteazkena, ikusentzunezkoen zikloa isteko ***Joseba Iztueta*** gabiriarra etorriko zaigu “Zanskarreko Eskaladak” lana aurkeztera.

Joseba Iztueta eta Ekaitz Maiz Ladakh-era, indiar Himalaiako haran hurrun batera, egin duten azken espediziotik itzuli berri dira. Esplorazio-bidaia hau erabateko arrakasta izanez amaitu da: 17 eskalada-bide berri irekita eta Amaiur Peak-era, 5.760m-ko aurrez inork igo gabeko mendira, lehenbiziko igoera eginda.

“Ladakh espedizioa mendiak esploratzeko espedizio gisa planteatu genuen, Shafat Fortress mendiaren ipar horma begiz jota genuela.Gure lagun Oriol Baró, Luichy eta Jordi Monsek lekuari buruzko informazioa eta harremanetarako kontaktuak eman zizkiguten. Oinarrizko kanpamendura iritsi ginenean bertatik ikusten zen orratz zoragarri batek gure arreta bereganat zuen, eta esan zigutenaren arabera, sekula inork igo gabea zen” diosku Joseba Iztuetak

---

Posteriormente, el ***miercoles 25 de octubre***, para cerrar el ciclo de audiovisuales contaremos con la presencia del gabiriarra ***Joseba Iztueta*** que nos presentará su trabajo “Zanskarreko Eskaladak”.

Joseba Iztueta junto a Ekaitz Maiz acaban de regresar de su última expedición al Ladakh, un remoto valle del Himalaya indio. Este viaje de exploración se ha saldado con éxito total. Abriendo 17 vías de escalada nuevas y realizando la primera ascensión del Amaiur Peak, una cima virgen de 5.760m.

“Planteamos la expedición al Ladakh como una expedición de exploración sobre las montañas, con un ojo puesto en la pared norte del Shafat Fortress. Nuestros amigos Oriol Baró, Luichy y Jordi Mons nos habían informado sobre el lugar y facilitado los contactos. Cuando llegamos al campo base, nos llamó la atención una preciosa aguja que se veía desde allí y que, según nos han dicho, no tenía ascensión alguna”. Nos cuenta Joseba Iztueta,



# ESKALADA PRAKTIKAK

## ANTZIZAR KIROLDEGIKO ROKODROMOAN

Urriak 28, larunbata

Ikus-entzunezkoen zikloaz gain, ***urriaren 28an, larunbata, Antzizar Kiroldegiko rokodromoan***, ate irekien jardunaldia eskainiko da. Beraz, heldu zein haur, era honetako jardueretara gerturatu eta hastapen urratsak emateko aukera izango da animatzen diren guztientzat. Ekintza honen ordutegia goizean ***10:00etatik 14:00etara*** eta arratsaldean ***16:00etatik 19:30era*** izango da."

---

Además del ciclo de proyecciones, ***el sábado día 28 de octubre***, podremos disfrutar en el ***rocódromo del polideportivo Antzizar*** de una jornada de puertas abiertas que permitirá acercarse a este tipo de actividades a grandes y pequeños, pudiendo iniciarse en este deporte todas aquellas personas que lo deseen. El horario de esta actividad será a la mañana de ***10:00h hasta 14:00h*** y por la tarde de ***16:00 h a 19:30 h.***



Anbizio handiko egitarau betea eta erakargarria antolatu dugula uste dugu zalantzarik gabe. Ziur gaude bertaratutakoak gustura geldituko direla eta mendiko kirolen topagune, bultzada eta zabalkunderako aukera paregabea izango dela.

Eskerrak eman nahi dizkiogu ***Beasaingo Udalari*** emandako laguntzagatik eta elkarlanagatik, horrenik gabe Mendi Festibal hau antolatzea ezinezkoa bailitzateke..

***Arrastaka Mendi Taldearen*** eta ***Aizkorri Mendizale Elkartearen*** izenean, orokorrean kirolzaleak zareten guztioi eta bereziki mendizaleak zaretenoi, Beasaingo Mendi Festibalaren zita honetan gurekin batera parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

---

Sin duda, pensamos que hemos organizado un apretado y ambicioso cartel que a buen seguro dejará muy buen sabor de boca a los asistentes y servirá de encuentro, motivación y divulgación de los deportes de montaña.

Queremos agradecer al ***Ayuntamiento de Beasain*** por su ayuda y colaboración, puesto que sin ella esta Mendi Festibala no hubiera sido posible realizarla.

***Desde*** ***Arrastaka Mendi Taldea*** y ***Aizkorri Mendizale Elkartea*** invitamos a todos los aficionados al mundo del deporte en general, y de la montaña en particular a que nos acompañen en esta nueva cita de la Beasaingo Mendi Festibala.